



# Iraupen luzeko ibilaldiak abian

Igande honetan, Villabonako Aizkardiren martxa eta Nerbioi-Ibaizabalen ibilaldia izango dira

**Ramon Olasagasti.** Apiril-maiatzekin eguna luzatu eta eguzki printzak goxatzen hasten direnean hasten dira iraupen luzeko mendi martxak ere. Egutegian aski errotuak horietako asko. Iraupen luzeko ibilaldi dezente da Euskal Herrian, eta ibiltari handiak ere mordoska. Igande honetatik aurrera, ia asteburu oro izango dute euren hauspo eta zango giharrak zailtzeko aukera. Etzi, iraupen luzeko bi ibilaldi izango dira: Nerbioi-Ibaizabal elkarteak antolatua bata, eta Villabonako Aizkardirena bestea.

Nerbioi-Ibaizabal elkartearen martxak 31. aldia du aurten. Galdakaoko Ganguren, Bilbo-Abusuko Osea, Arrigorriagako Padura eta Zornotzako mendi taldeek osatzen dute elkarte, eta aurten Osea taldeari egokitu zaio ibilaldia antolatzeko ardura. Beraz, abiatzea ere Abusu auzotik izango du ibilaldiak. Goizeko 07:30ean abiatuko dira gazte eta nagusiak, eta goizeko 09:00etan, umeak.

Bi ibilbide izango dira beraz. Luzea bata: Abusu, Bolintxu, Alzola, Pastorekorta landa, Espino iturria, Kiputxeta landa, Gallarraga, Ganekogorta, Ganeta, Igertu, Abusu. Bestea motzagoa, umeentzat: Abusu, Alzola, Goiko Benta, Malmasin, Abusu. Kontrolak izango dira toki horietako batzuetan, eta ibilaldiaren martxa egokia ziurtatzeko, gutxieneko eta gehienezko ordu-tegiak izango dira leku horietan. Anoi puntuak eta mediku zerbitzuak ere izango dira ibilbidean.

Villabonako Aizkardi mendi taldearen martxak, berriz, 34. aldia beteko du aurten. Martxa hau Euskal Mendizale Federazioak antolatu duen Ibiltari Handien Sariketarako baliagarria izango da; zirkuitu horretako lehen martxa izango da, hain zuzen ere. Ibilaldiak 10 bat orduko iraupena izango du, eta labur azalduta hauxe izango da ibilbidea: Villabona, Onddi, Mandoegi, Ameraun, Urdelar, Belabieta, Amasa eta ostera Villabona.

## NERBIOI-IBAIZABALEN 31. MARTXA

**Noiz:** apirilak 7.

**Irteera:** Gazte eta nagusiak 07:30ean, umeak 09:00etan.

**Abiapuntua:** Abusuko Osea mendi taldearen egoitzatik (Zamakola, 152)

**Izen emateak:** Goizeko 07:00etatik aurrera, irteeran bertan.

**Oharrak:** Hainbat kontrol eta anoi puntu izango dira, baita mediku zerbitzua ere. Beharrezkoa da federatuta egotea.

## VILLABONAKO AIZKARDIREN 34. IBILALDIA

**Noiz:** apirilak 7.

**Irteera:** Goizeko 07:00etan.

**Abiapuntua:** Aizkardiren egoitza.

**Iraupena:** Hamar bat ordu.

**Izen emateak:** 943-694458 telefonoan; [aizkardi@eresmas.com](mailto:aizkardi@eresmas.com) helbidean edota irteera puntuan bertan, abiatu baino lehen.

**Oharrak:** Hainbat kontrol izango dira, eta zenbaitetan salda eta zenbait elikagai emango dira, baina janaria norberak eraman behar du. Amaieran, dutxatzeko aukera bada, Olaederra kiroldegian, eta 18:00etan mendiko materiala zozketatuko dute.

Irteera goizeko 07:00etan izango da, Aizkardiren egoitzatik (Villabonako eliza eta plaza inguruan). Martxan zehar kontrolgune batzuk ezarriko dituzte, eta, jakina, derrigorrezkoa izango da kontrol horietatik igarotzea gero diploma jasotzeko. Kontrol horietako batzuetan salda eta zenbait elikagai emango dituzte, baina janaria norberak eraman beharko du. Izena ematea ez da deus ordaindu behar. Amaieran, dutxatzeko aukera izango da, Olaederra kiroldegian, eta 18:00etan mendiko materiala zotz egingo dute.

## ATERPEA

## Aterperako deia

bidaiaren baterako lagunak bilatzeko, salaketak egiteko, proiektzioak eskaintzeko... Doan da tarte hau. Helbidea: [mundumira@egunkaria.com](mailto:mundumira@egunkaria.com)

MUNDUMIRA gehigarrian tarte bat eskaini nahi diogu irakurleari mendiko materiala saldu edo erosteko;

### MENDIKO LITERATURA ✖

**Rosa Fernandez Arroyo eta Marta Iturraldek irabazi dute Desnivelen Literatur Saria**

Bi izan dira aurten Desnivel aldizkariak antolatutako mendi, bidai eta abenturari buruzko literatur sariketaren irabazleak: Marta Iturralde zaragozarra eta Rosa Fernandez Arroyo madrildarra. Iturraldek XVIII eta XIX. mendeetan emakumeek Pirinioetan egindako igoerak oroitu ditu. Rosa Fernandezek, berriz, mendiko ipuin batzuk bildu ditu. Liburuak maiatzean argitaratuko dira. Kike de Pablo, Jose Antonio Labordeta, Sebastian Alvaro eta Dario Rodriguezek osatu dute epaimahaia.

### IRTEERA GIDATUAK ✖

**Vasco de Camping taldeak mendiko gidari bulegoa jarri du abian**

Donostiako Vasco de Camping taldeak mendiko gidarien bulegoa jarri du martxan, bazkide eta gertukoek laguntza izan dezaten Pirinioetan eta kanpoko mendietan zailtasuneko igoera, treking, zeharkaldi eta eskaladak egiteko. Taldearen egoitzan eta webean ([www.vascocamping.org](http://www.vascocamping.org)) eskuragai dago egutegia. Hurrengo irteera gidatuak mendiko eskikoak izango dira: apirilaren 26tik 28ra Gavarnie-Monte Perdido. Maiatzaren 10-12an Viados, Posets, Bachimala, Eriste. Ekainaren 1etik 8ra Galenstock, Dammastock, Mont Blanc.

### ARGITALPENAK ✖

**'Leitzaran, naturaren taupada' gida aurkeztu du Leitzaran 31 taldeak**

'Leitzaran, naturaren taupada' gida aurkeztu du oraindik orain Leitzaran 31 ekimenak. Gidaren barruan hiru eskuorri jasotzen dira eta eskuorri bakoitzak bailararen aberastasun ugariak erakusten ditu, hala-nola Leitzarango historia, trenbidea, ibaiaren garrantzia... Gidak mapa ere badakar eta bertan eskuorrietan azaltzen diren guneak kokatzen dira. Plazaolako trenbidea eraikitzeko baimena duela 100 urte eman zen eta horren harira, ospakizun ekitaldi zenbait ere izan ziren Andoainen.

### ESPEDIZIOAK ✖

**Mikel Alvarez atzo abiatu zen Carstensz Piramidera, Zazpi Handiak osatzera**

Mikel Alvarez bilbotarra atzo abiatu zen Indonesiako Irian Jaya uhartera Carstensz Piramide (4.884 m) igotzeko asmoarekin. Huraxe falta du kontinente bakoitzeko gailurrik garaienak igo eta zerrenda osatzeko. Iaz ere saiatu zen, baina burokrazia arazo batzuk tarteko, ezin izan zuen saiatu ere egin. Carstensz Piramide hartzen da Ozeaniako altuena gisa, baina Indonesian egonik, batzuk Asiako dela diote. Berak, badaezpada, Australiako Kosciusko ere igoko du irteera berean.